

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak enplegu babestuari babesa emateko batzordea sortu du

*Batzordearen egiteko nagusia kontratuen % 6 enplegu zentro bereziei eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroi esleitzeko legezko agindua betetzea da*

Miércoles, 02 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, enplegu babestuari babesa emateko batzordea sortu du. Egiteko nagusia Foru Administrazioa osatzen duten departamentu eta enpresa publiko guztiak koordinatzea izango da, Kontratu Publikoen 6/2006 Foru Legeko bederatzigarren artikuluan ezarritako legezko agindua betetzeko. Lege horrek Nafarroako administrazio publiko guztiak behartzen ditu kontratuen % 6 enplegu zentro



Langilea

bereziei eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroi esleitzera.

Betebehar horrek 2010ean egindako lege aldaketa bat du oinarri. Horren aurretik, legeak administrazioei gomendioa egiten zien kontratuetakoa batzuk zentro horientzat gordetzeko, baina ez zuen eskatzen portzentaje zehatzik. Baina idazketa berriak administrazio publikoei legea betetzen dela ziurtatzeko aukera ematen duen sistema bat sortzeko eskatzen die, hartara, krisialdi honetan enplegu zentro bereziei eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentroi lan nahikoa izatea errazten zaie.

Aurreikusi denez, enplegu zentro berezien eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentrozen lan kopurua handitzeak Nafarroako Gobernuak bideragarritasunean laguntzeko zentro horietara bideratzen dituen zenbatekoak aurrezteko ekarriko du berekin, izan ere, lana baldin badute, bideragarriagoak izango dira eta laguntza publiko gutxiago beharko dute diru-laguntza modura, bereziki erakunde horien defizita arintzera bideraturikoak, 2011n milioi bat eurokoak izan baitziren.

Batzordea Foru Administrazioiko departamentuak eta enpresa publikoak koordinatzeaz arduratuko da kontratuak gordetzen direla bermatzeko, baita legezko agindu horren garapena bultzatzeaz ere.

Horretarako, erabakiak departamentu guztiei agintzen die batzordeak eskatzen dien lankidetzeta eta babes guztia emateko azkartasun eta efikazia osoz.

Halaber, kontratazio organoen eta Administrazio Kontratuen Batzordearen eskumenak gorabehera, agindu hori betetzeko mahaigaineratu daitezkeen gaien inguruan jakinaraziko du eta, egoki denean, behar diren arau aldaketak proposatuko ditu. Azkenik, betebeharrak hori Nafarroako beste administrazio publiko batzuek, toki erakundeek esate baterako, betetzeko sentsibilizazio ekintzak bultzatuko ditu.

Organoa Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak zuzenduko du eta José Javier Esparza Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak (presidenteordea), Juan Francisco Franco Aurrekontuaren zuzendari nagusiak eta Marta Pernaut Gai Juridikoetako eta Lehendakartzeko zuzendari nagusiak ere osatuko dit.

Horiez gain, Nafarroako Enplegu Zentroen Elkarteko ordezkari batek (ACEMNA), Nafarroako irabazi asmorik gabeko Enplegu Zentro Berezien Batzordeko ordezkari batek eta Gizarteratzeko eta Laneratzeko Zentroen Nafarroako Elkarteko beste batek osatuko dute organoa. Idazkari lanetan arituko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegu Sustapeneko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuko zuzendaria.

Helburuak betetze aldera, batzordea urten bi aldiz elkartuko da, eta, beharrezkoa denean, ezohiko bilerak egingo ditu. Urteko lehen bileran kontratazioen inguruko departamentuen plangintza onetsiko da. Plangintza horretan, legeak ezartzen duen aginduari jarraiki gordeko diren kontratuak jaso beharko dira.

### **38 milioi euroko laguntzak hiru urtean**

Enplegu zentro bereziak enpresak dira, eta haien helburu nagusia lan emankorra burutzea da, maiztasunez merkatuko jardueretan parte hartuta, urritasunen bat dutenei enplegu bat ziurtatzeko. Hortaz, langileen % 70 urritasunen bat dutenek osatu behar dute gutxienez. Nafarroako lehen Enplegu zentro berezia 1987an sortu zen. Gaur egun 17 daude eta 1.258 langile ditu.

Azken hiru urteetan, Nafarroako Gobernuak NEZen bidez Enplegu Zentro Bereziak bideratu duen aurrekontua 32 milioi euro baino gehiagokoa izan da (10.970.749 euro 2011n). Laguntza horren bidez urritasunen bat dutenen soldataren % 50 (edo % 75, urritasun mailaren arabera), pertsona horien Gizarte Segurantzako kostuak, laguntza unitateak, inbertsioak, laguntza teknikoa eta prestakuntza, eta haien jarduerak sortzen duen defizita (2011n milioi bat euro) ordaintzen laguntzen da.

Beste alde batetik, gizarteratzeko eta laneratzeko zentroek merkatuko jardueretan parte hartzen dute, eta haien helburu nagusia gizartean baztertuta daudenak edo hala egoteko arriskua dutenak gizarteratzea eta laneratzeko lortzea da, trebatzeko eta enplegurako prozesu pertsonalizatu bidez. Pertsona horien lan kontratua hiru urtekoa izaten da gehienez (gutxienez langileen % 30ek baldintza hori bete behar du), eta epea amaitzean ohiko lan merkatuan sartu behar dira. Guztiak dira irabazi asmorik gabekoak.

Gizarteratzeko eta laneratzeko lehen zentroa 2000. urtean sortu zen, eta gaur egun ezaugarri horiek dituzten 13 zentro daude. 195 langile dituzte.

Azken hiru urteetan, Nafarroako Gobernuak NEZen bidez Gizarteratzeko eta Laneratzeko Zentroetara bideratu duen aurrekontua 6 milioi euro baino gehiagokoa izan da (1.805.000 euro 2011n). Laguntza horren bidez, bazterkerian dagoen edo hala egoteko arriskua duen langile bakoitzaren LGSren % 80, pertsona horien Gizarte Segurantzako kostuak, laguntzarako langileak, inbertsioak, laguntza teknikoa eta prestakuntza ordaintzen laguntzen da.